



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilak 2

Vitoria-Gasteiz, 2 de abril de 2019

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

GOBERNUAK PP OHARTARAZI DU LANGILE PUBLIKO GUZTIEN ERRETIRO AURRERATUAREN PRIMAK ATZERAERAGINEZ BERRESKURATZEA NEURRIGABEA DELA ETA EZ DELA ERREALISTA

- Milioi askoko kostua ekarriko luke, gastu neurrigabea eta bideraezina, eta, horrela, Gastu Araua ez betetzea ekarriko luke eta Eusko Jaurlaritzak Funtzio Publikoaren lan-baldintzak hobetzeko dituen konpromiso guztiak baldintzatuko lituzke
- Gainera, interferentzia larria da Funtzio Publikoaren negoziazio kolektiboan, kontuan hartuta hura dela erretiroaren adina, aurretiaz egiteko aukera, hura sustatzeko primak edo jaso beharreko kalte-ordainak adosteko arduraduna

Eusko Jaurlaritzak, gaur, Legebiltzarreko Alderdi Popularrak erregistratu duen “2012ko urtarrilaren 1etik gaur egun arte aurretiaz erretiratutako irakasleek kalte-ordaina kobratzearen etendura altxatzeari buruko lege-proposamena” izapidetzearen aurkako irizpena adierazi du.

Lehenengo eta behin, Eusko Jaurlaritzaren iritziz, Legebiltzarreko ekimena berariaz da engainagarria; izan ere, izenburuak 2019ko urtarrilaren 1etik aurretiaz erretiroa hartutako irakasleak baino ez ditu aipatzen, baina testuak euskal langile publiko guztien erretiro aurreratu boluntarioa sustatzeko primak berreskuratzeko eskatzen du eta ondoreak 2012tik aurrera izateko.

Hori horrela, Eusko Jaurlaritzak ohartarazten du atzeraeraginezko ondoreak dituzten erretiro aurreratuagatiko primak berreskuratzeko ez dela errealista; izan ere, gastu publikoaren igoera neurrigabea ekarriko luke eta, ondorioz, baliteke “Gastuaren Araua” bete ezin izatea. Gainera, milioi askoko inpaktu ekonomikoa ekarriko luke eta horrek bideraezin egingo lituzte dagoeneko Jaurlaritzak langile publiko guztiarekin konprometitutako lan-hobekuntzak: % 2,25eko soldata-igoera; Itzarri-BGA Erentzako ekarpenen igoera; soldataren % 100 kobratzea, lehen egunetik, baja kasuan; aste-kopuruaren igoera eta emakume eta gizonetan gurasotasun-baimenak parekatzea; Euskadiko administrazio orokorreko lan-kontratupeko langileen eta justizia-administrazioaren zerbitzuko langileen lanpostuen balorazioa hobetzea eta, beraz, baita ordainsariak ere, eta abar.

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA

Gainera, Eusko Jaurlaritzak PPri gogorarazi dio erretiro-adinaren negoziazioa, aurretiaz egiteko aukera, hura sustatzeko primak edo jaso beharreko kalte-ordainak langile publikoak ordezkatzeko dituzten zentral sindikalen negoziazio kolektiboaren zati direla. Hori dela eta, proposamena egin duen taldea, bere ekimenarekin, larriki oztopatzen eta baldintzatzen ari da Funtzio Publikoaren negoziazio kolektiboaren eremua.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak uste du neurri hori martxan jartzeak konparaziozko bidegabekeria ekarriko lukeela; izan ere, Espainiako Gobernuak erretiro aurreratua sustatzeko primak eten dituenetik, pertsona askok erabaki dute aktibo jarraitzea eta euskal administrazio publikoarentzat lanean jarraitzea.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

134.000 EURO INGURU NAUTIKA ETA ARRANTZAKO IKASKETETAKO BEKAK FINANTZATZEKO

- Arrantza sektorearekin zerikusia duen prestakuntza gazteen artean sustatu eta arrantzan belaunaldi berriak sartzen eta sektorea modernizatzen lagundu nahi da laguntzekin.
- Pasa den ikasturtean 122 pertsona izan ziren laguntza hauen onuradunak

2018-2019 ikasturtean Pasaiaiko, Bermeoko eta Ondarroako Nautika eta Arrantzako Lanbide Heziketako Ikastegietan nautika eta arrantzako ikasketak egiteko beka iragartzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak emandako Agindua onartu du Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak bere azken bileran. Laguntza horiek finantzatzeko 134.000 euro inguru erabiliko dira.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailaren helburuetako bat da arrantzarekin lotura duten sektoreetan lan egiten duten pertsonen trebakuntza sustatzeko politika egokia edukitzea. Era berean, lehentasunezko zat jotzen du gazteei sektorean sartzeko erraztasunak ematea, sektorean belaunaldi berriak sartzen eta sektorea modernizatzen laguntzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko itsas eta arrantzako ikasketegien eta beka programa honen bitartez erantzuna eraginkorra eman nahi zaie sektoreak dituen prestakuntza premiei, "ad hoc" ikastaroak antolatuz sektorearen premia puntualei erantzuteko eta ikastegi horietan ematen den itsas eta arrantzako ikasketei jarraipena emateko.

Laguntzen kopuruak eta diruz lagundu daitezkeen gastuak

Laguntza guztiak batera 133.815 eurokoak izango dira gehienez ere, eta ohiko bizilekutik kanpoan bizitzeko gastuak finantzatzeko zein zentrorra egindako joan-etorriak, jana eta ikasketa materiala finantzatzeko izango dira. Beken zenbatekoari dagokionez, Aginduaren oinarrietan ezarritako irizpideen arabera bekaren onuradunari esleituko zaizkion puntuekin zuzenki proportzionala izango da. Halere, pertsona bakoitzak 2.404,05 euro eskuratu ahal izango du gehienez ere.

Beka guztiak, euren zenbatekoa edozein dela ere, ordainketa bakarrean ordainduko dira, hau da, bekaren %100 batera ordainduko da, ikastaroa amaitu eta gero, betiere onuradunak ikastaroari etekina atera badio eta matrikulatutako modulu eta ikasgai guztiak gainditu baditu.

Bekak hautagaiak lortutako puntuazioaren arabera esleituko dira, eta hautagaiak esandako edozein eskolatan matrikulatuta egon beharko dira 2018-

2019 ikasturtean. Puntuazioa, berriz, horretarako berriaz izendatutako Balorazio Batzorde batek ezarriko du. Puntuak irizpide hauen arabera esleituko zaizkio pertsona bakoitzari:

1. Egingo duen ikasketa maila
2. Ohiko bizilekuaren herritik eta ikasketa zentroaren herriaren arteko distantzia
3. Eskatzailearen baldintza pertsonalak eta familiarrak
4. Eskatzaileak edo bere familiak aurreko urtean eskuratutako diru sarrera gordinak, edozein dela ere sarrera horien jatorria

Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik hasita.

2017-2018 ikasturtearen laburpena

2017-2018 ikasturtean ere 133.815€ bideratu ziren beka horietara, eta beka guztiak gauzatu ziren. Pasa den ikasturtean 122 pertsona izan ziren guztira onuradunak:

- Goi mailako zikloa: 64
- Erdi mailako zikloa: 36
- Kostako patroiz balioaniztuna: 22

Beken zenbateko maximoa 2.404,05 eurokoa izan zen eta minimoa 303,18 eurokoa, eta zenbateko guztiak deialdiaren oinarrietan puntuaren esleipenerako agertzen diren irizpideen arabera kalkulatu ziren.

Enplegua eta Gizarte Politikak

**ARTOLAZABAL: “MARTXOAN 1.911 LANGABE GUTXIAGO EGON DIRA;
LAN-MERKATUAK KOLEKTIBO KRONIFIKATUEI ERE AUKERAK
ESKAITZEN DIZKIE”**

- Lanbiden 117.952 pertsona daude langabezian erregistratuta, 2018ko martxoan baino 9.212 gutxiago
- 45 urtetik gorakoan artean 500 langabe gutxiago daude eta iraupen luzeko langabezian 442 pertsona gutxiago
- Azken hilabeteen sinatutako kontratuen % 8,69 mugagabea izan da

Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren iritziz, “martxoan erregistratutako langabeziaren bilakaera ona izan da, eta **azken 15 urteotako bigarren hilabeterik onena izan da**, 2005eko martxoaren ondoren”. 2019ko martxoan, Lanbideren bulegoetan erregistratu den **langabe-kopuruak behera egin du, eta 1.911 pertsona gutxiago dira**; horrela, 117.952 dira, guztira. Beraz, **beherakada**, termino erlatiboetan, **% 1,6koa** izan da”.

“Euskadik, orain, 117.952 pertsona ditu langabezian erregistratuta, otsailean baino % 1,59 gutxiago, eta, 2018ko martxoaren aldean, 9.212 langabe gutxiago (% 7,25 gutxiago). Horrek guztiak esan nahi du **azken 15 urteotako bigarren martxorik onena izan dela aurtengoa**, 2005eko martxoa izan zela onena”, esan du Artolazabal sailburuak.

“Gure lan-merkatuak aukerak eskaintzen ditu, eta datuek erakusten dute zailtasun gehien duten kolektiboek ere enplegu horietara jotzen dutela. Bide onetik goaz, **enplegua sortzen jarraitzen dugu**, eta **gure erronka da hori hobea eta gehiago izatea da**. Ez ditugu ahaztu oraindik beren aukera izan ez duten **pertsonak** eta, hori dela eta, **enplegurako prestakuntza jasotzeko eta eguneratzeko beharra** dagoela azpimarratzen jarraitu nahi dugu”, esan du Beatriz Artolazabalek.

Pasa den martxoan, langabeziak behera egin zuen **45 urtetik gorakoetan**, eta 500 pertsona gutxiago zeuden langabezian erregistratuta, eta **iraupen luzeko langabeziak ere behera egin zuen**, eta azken hilean **442 pertsona gutxiago zeuden**. “Bi kolektibo horiek zailtasun bereziak dituzte, eta bilakaera horrek erakusten du suspertze ekonomikoa ere aukerak ematen ari zaiela langabe kronifikatuenei”, esan du Artolazabal sailburuak.

Gazteria

“Gure helburuetako bat, legegintzaldi honetarako, kontratazioa sustatzea zen, gutxienez 20.000 gaztek lan-aukera izateko, eta, dagoeneko, 16.321 gaztek lortu dute”, esan du Artolazabalek, Eusko Jaurlaritzak aktibatzen dituen programetan **gazteen enplegua sustatzeko laguntza** bereziari dagokionez.

“Gainera, azken hamabi hilabeteetan, iraupen luzeko langabeziak iraupen laburreko langabeziak baino bilakaera hobea izan du; 7.736 langabe gutxiago daude”, esan du Artolazabal sailburuak. Martxoan, langabeziak sektore ekonomiko guztietan egin du behera. Nabarmentzekoak dira **industria-sektorearen eta zerbitzuen sektorearen beherakadak**, % 1,9koa bi kasuetan (275 langabe eta 1.505 langabe gutxiago, hurrenez hurren). Termino erlatiboetan eta iazko egoera aintzat hartuta, nabarmentzekoa da **eraikuntzari** lotutako langabeziaren beherakada handia, % 17,90ekoa.

“Sektore horietan guztietan ere **prestakuntza gehiago sustatzen jarraitzen dugu** arlo digitalean eta teknologia berrien arloan, eta horrek kontratazio berriak eta enplegu gehiago ekarriko ditu”, esan du Artolazabal sailburuak.

Lurraldean arabera, urteko hirugarren hilabetean, **langabeziak hiru lurraldeetan egin du behera: Gipuzkoan % 2,3, Bizkaian % 1,4 eta Araban % 1,2**. Urteko saldoan, portaera onena Bizkaia izan du, % 8,3ko beherakada erlatiboa izan baitu, gero Gipuzkoak (% 6,3ko beherakada) eta, gero, Arabak (% 4,9ko beherakada).

Martxoan, **gizonetan langabeziak % 1,8** egin du behera, eta, **emakumeetan**, % 1,4. Urteko erkaketan, langabeziak, gizonen artean, % 8,4 egin du behera, eta, emakumeen artean, % 6,4.

Prestakuntza

Adinaren arabera, 25 urtetik gorakoek emaitza onak izan dituzte, Beatriz Artolazabalek esan bezala: “gaur egun, langabeen erdiak baino gehiagok (% 50,9) 44 urte baino gehiago ditu; % 24,7 ez da 35 urtera iristen; eta % 24,4 35 eta 44 urte bitartekoa da. Gainera, 72.933 langabek, guztien % 61,8k, gehienez derrigorrezko irakaskuntzako ikasketak dituzte. Azken hilabeteetan, oinarrizko prestakuntza-maila duten pertsona langabeen kopuruak behera egin du (846). Azken urtean, oinarrizko prestakuntza-maila duten pertsonen artean langabeziaren beherakada % 7,7koa izan da”.

Azken hilean, 74.538 kontratazio egon dira eta, horietatik, 6.476, % 8,69, **mugagabeak** izan dira. Horrek esan nahi du urtea hasi zenetik guztira 20.560 kontratu mugagabe sinatu zirela Euskadin, 2018ko lehen hiruhilekoan baino % 2,18 gutxiago. “Hori balio garrantzitsua da; izan ere, enpleguaren kalitatea neurtzeko modu bat da, baina ez bakarra, eta, hori horrela, enplegu hobearen aldeko apustua areagotzen dugu”, esan du sailburuak.

Artolazabalek **Sara de la Rica UPV/EHU-ko irakaslearen Gazteriari eta Enpleguari** buruzko azterlana aipatu du: “bertan adierazten da eta bat egiten dut horrekin, enpresek talentua sortu eta hari eutsi behar diotela, eta merkatuarekin eta hizkuntzekin, sormenarekin, talde-lanerako gaitasunarekin bat datorren goi-mailako hezkuntza duten gazteen eskari handia izango dela enpresa onen aldetik, eta lan-baldintza onak jasoko dituztela. Hori dela eta, prestakuntza oneko gazteak garatu behar dira, ausartak, berritzaileak, ekarpenak egiteko eta ikasteko gogotsuak; autonomian eta talde-lanean gaitasun berriak eskuratzeko gogotsuak; sintesi-gaitasunak, diziplina,

hizkuntzak, inguruneetara egokitzeko gaitasunak dituztenak; eta etorkizuneko enplegetara begira dagoen eta aurrerapen teknikoaren osagarri den prestakuntza izan behar dute.

“**Deustuko Unibertsitateak** ere ekintzailletza aipatzen du, eta, aste honetan bertan, 18. Gazte Enplegu Foroa antolatu du. Unibertsitateak aipatzen duenez, enpresek gero eta irizpide konplexuagoak erabiltzen dituzte langileak hautatzeko, eta ez dira paperezko Curriculum Vitae hutsera mugatzen”.

“**Guibert** errektoreak dio Unibertsitateak argi duela lanpostuetara egokitu behar dela, baina horiek birdiseinatu egin behar direla, unibertsitateko prestakuntza hobeto aprobetxatzeko eta lanean produktibitatea hobetzeko, gradu eta gradu bikoitz eta berezko titulu berriekin, praktiketako eskaintza gehiagorekin, nazioarteko hitzarmen gehiagorekin, hizkuntzekin, etengabeko prestakuntza gehiagorekin eta prestakuntza dualarekin”, esan du Artolazabalek.

“Argi izan behar dugu mundua **ohikoaz bestelako ekoizpen- eta enpresa-eredua** duela helmuga, eta bertan datu, espazio digital, adimen artifizial berriak eta 4. industria-iraultzaren barruan robotizazio handiagoa daudela”, esan du Artolazabalek.

Artolazabalek, halaber, **Mondragon Unibertsitateko** errektorea aipatu du, Vicente Atxa; errektoreak esan du hezkuntza-eraldaketaren eremuan planteatzen diren erronkei erantzun behar zaiela eta, horretarako, berrikuntzaren kultura sustatu, bai erakundeetan, bai hezkuntza-erkidegoetan, eta irakasleek beren gain hartu beharko dituzten rol berriei erantzungo dieten pertsonak prestatu.

Hezkuntza

1,3 MILIOI EURO IKASTETXEKO HIZKUNTZA-PROIEKTUAK GARATZEKO

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza sailburuaren proposamenez gaurko bileran onartu du Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ematen duten itunpeko ikastetxe pribatuekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten federazio eta elkarteentzako dirulaguntzen deialdia egiten duen Agindu bat, hauek euren hizkuntza-proiektuak gara ditzaten. Deialdi honek 1.332.000 euroko diru kopurua du.

Aipaturiko ikastetxe horiek deialdi honek arautzen dituen dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte baldin eta, 2019-2020 ikasturtean, berrikuntza-proiektuak egiten badituzte ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzeko modalitate hauetakoren batean:

- Ikastetxeko hizkuntza-proiektua, irakurketa-plana lehentasunzat hartuta eta hizkuntzen tratamendu integral eta integratuaren ikuspuntutik garatuta.
- Ikastetxeko hizkuntza-proiektu eleaniztuna, euskara ardatz hartuta eta curriculum-alor edo gaiak atzerriko hizkuntzetan irakastean zentratuta.

Deialdi honen bidez diruz lagundu ahal izango dira irakasleen prestakuntza jarduerak, beti ere ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzeko berrikuntza-proiektuei loturikoak. Hala nola:

- Prestakuntza-jarduerak, Irakurketa Planaren diseinuari eta garapenari lotuak.
- Prestakuntza-jarduerak, ikasleen irakurmena garatzen laguntzeko metodologia aktibo eta berritzaileekin zerikusia dutenak (batez ere, euskaraz).
- Prestakuntza-jarduerak, alor eta gai guztietako irakasleei zuzenduak, ikasleen komunikazio-gaitasunaren garapena hobetu eta hizkuntzen tratamendu integratua eta integralari ekiteko.
- Prestakuntza-jarduerak, hizkuntzen irakaskuntzarekin eta atzerriko hizkuntzan ematen diren gaien irakaskuntzarekin zerikusia dutenak, metodologia aktibo eta berritzaileak garatzeko, hizkuntzen tratamendu integratua eta integrala sustatze aldera.

Deialdi honek 1.332.000 euroko zenbatekoa du orotara. Nortasun juridikoa eta unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako itunpeko ikastetxe pribatuekin estatutu edo araudi-harremanak dituzten federazio edo elkarteek izango dute dirulaguntza horiek jasotzeko aukera. Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe eta estatu mailako ikastetxeek osatu ahal izango dituzte federazio edo elkarte horiek, baina estatu mailako ikastetxeek osatutakoek Euskal Autonomia Erkidegoan izan beharko dute egoitza, hizkuntza-proiektua Euskadiko ikastetxeetan gauzatu beharko dute, hiru ikastetxe gutxienez EAEn izan

beharko dituzte kokatuta eta itunpeko gelen guztizkoa 50ekoa edo 50etik gorakoa izan beharko dute.

2018-2019 ikasturte honetan Eleaniztasunerantz programan parte hartzen ari diren 292 ikastetxe daude orotara Euskadin, publikoak nahiz itunpekoak, eta beraz, euren Hizkuntza Proiektu Eleanitza garatzen ari direnak.

Hezkuntza

169.600 EURO LANBIDE HEZIKETAKO ITUNPEKO ZENTROETAKO IRAKASLEEN FORMAZIO IKASTAROETARAKO

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetan irakasleentzat burutzen dituzten prestakuntza-jarduerak diruz laguntzen dituen Agindua onartu du. Prestakuntza-jarduera horiek 2019-2020 ikasturtean burutuak izan beharko dute.

Laguntza hauek eskatzeko interesa duten ikastetxeek, eskaintzen dituzten heziketa-zikloekin zerikusia duten prestakuntza-jarduerak aurkeztu beharko dituzte deialdira. Prestakuntza-jarduera bakoitzak gutxienik 10 orduko iraupena izan beharko du, eta 35 ordukoa gehienez. Deialdian parte hartu ahal izango dute, Euskadin Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintzeko baimenduta dauden itunpeko ikastetxe pribatuek.

Deialdi honek 169.600 euroko diru kopurua du. Ikastetxe bakoitzak jaso dezakeen dirulaguntzarik handiena 32.000 eurokoa da, hautatutako prestakuntza-jarduera guztiengatik. Honako gastu hauek ordaintzeko erabili beharko dira deialdi honen bidez jasotako laguntzak: ikastetxez kanpoko adituak kontratatzeak eragindako gastuak, edo prestakuntza-jardueretarako berariaz eskuratutako materialen gastuak ordaintzeko.

Jasotako dirulaguntzak bateraezinak izango dira helburu berbera duten beste deialdi batzuetatik jasotako laguntzekin. Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindua EHAA n argitaratu eta hurrengo egunean hasita.

Hezkuntza

HEZIKETA-ZIKLOEN ESKAINTZA PARTZIALA EGITEKO BAIMENAK ETA DIRULAGUNTZAK, LANBIDE HEZIKETAKO ITUNPEKO IKASTETXEETAN

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Agindu bat onartu du gaur izandako bileran, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuei 2019-2020 ikasturtean Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialean irakasteko baimena eta dirulaguntzak arautzen dituena. Deialdi honen baitan eman daitezkeen dirulaguntzen guztizko zenbatekoa 838.872 eurokoa da.

Eskaintza partzialak, modulu edo ikasgai solteetan matrikula egiteko aukera ematen dio Lanbide Heziketako ikasleari. Ohiko matrikulan, aldiz, ikasleek ikasturteko modulu guztietan matrikulatu behar izaten dute. Eskola orduetan bertaratzeak derrigorrezkoa izaten jarraitzen du modalitate honetan, baina denbora gutxiago eskaintzen zaionez, ikasleak bestelako jarduera batzuekin bateratu dezake modulu hauek ikastea.

Kualifikazio maila hobetu nahi duten 18 urtetik gorako pertsoneri zuzendua izaten da eskaintza partziala, beti ere Lanbide Heziketako zikloetara sartzeko baldintzak betetzen badituzte. Lanbide-modulu hori edo horiek gaindituz gero, ziurtagiri akademikoa eta lortutako kompetentziei gehitzeko akreditazio partziala lortzen ditu ikasleak. Matrikula ikasturte hasieran egin ohi da.

2018-2019 ikasturte honetan, Lanbide Heziketako itunpeko 13 ikastetxek eskaintzen dute eskaintza partziala. Zehazki, 18 heziketa-ziklotako 71 modulu, erdi mailakoak nahiz goi mailakoak.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 54.000 EURO BIDERATUKO DITU GURE ARTEA SARIETAKO HIRU MODALITATEETAKO IRABAZLEAK SARITZERA

- **Sari hauen helburua da euskal arte garaikidearen hedapena sustatzea, arte plastiko eta ikusizkoen arloa jomugan jarritz**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak Gure Artea sariak arautu eta horietarako deialdia egiten duen agindua onartu du bere gaurko saioan. Guztira, 54.000 euro bideratuko dira ekimen honek saritzen dituen modalitate ezberdinetara, eta irabazle bakoitzak 18.000 euro jasoko ditu. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak antolatzen dituen ekimen honetan hiru modalitate daude: ibilbide artistikoa saritzen duena, sorkuntza-lana aitortzen duena eta arte plastiko zein ikusizkoen eragileen sustapenaren ingurukoa.

Sari hauek sormenaren garapena bultzatzea dute helburu, arte-sorkuntzarako pizgarriak erraztuz eta aitortza eskainiz arte sorkuntzari. Horrez gain, euskal arte garaikidearen hedapena errazteko xedea dute, arte plastiko eta ikusizkoen arloan gizartearen aitortza bideratuz.

Lehenengo modalitateak, lan eta ibilbide osoa aintzat hartuta “egindako lan sortaileagatik eta kulturari zein arte garaikideei egindako ekarpenagatik” nabarmentzen den artisten lana saritzen du. Bigarren modalitateak azken urteak hartzen ditu kontuan, eta “bere jarduera artistikoagatik zein sorkuntza garaikideari egindako ekarpenagatik nabarmendu den artista edo artista-taldea” saritzen du. Azkenik, hirugarren modalitateak arte plastiko eta ikusizkoen arloan eragileek egindako sustapen lana saritzen du. Hortaz, sari hauen baitan bai sortailean, bai bestelako agentean saritu daitezke.

Gure Artea sarietako irabazleak udaberrian zehar emango dira ezagutzera, eta sariak emateko gala udazkenean egingo da. Gema Intxausti, Erlea Maneros eta Bulegoa z/g izan ziren iazko irabazleak.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO ADVIERTE AL PP DE QUE RECUPERAR, RETROACTIVAMENTE, LAS PRIMAS DE JUBILACIÓN ANTICIPADA DE TODO EL PERSONAL PÚBLICO ES DESORBITADO Y NO REALISTA

- **Tendría un coste multimillonario inasumible que llevaría a incumplir la “Regla de Gasto” y condicionar todos los compromisos del Gobierno Vasco para mejorar de las condiciones laborales de la Función Pública**
- **Además es una interferencia grave en la negociación colectiva de la Función Pública que es la que se ocupa de acordar la edad de jubilación, la posibilidad de hacerlo anticipadamente, las primas para incentivarla o las indemnizaciones a percibir**

El Gobierno Vasco ha manifestado, hoy, su criterio desfavorable a la tramitación de la *“Proposición de Ley sobre el levantamiento de la suspensión del cobro de indemnización por el profesorado jubilado anticipadamente desde el 1 de enero de 2012 a la actualidad”*, registrada por el Grupo Parlamentario Popular.

En primer lugar, el Gobierno Vasco considera que la iniciativa parlamentaria es deliberadamente engañosa porque el título se refiere, únicamente, al profesor jubilado anticipadamente desde el 1 de enero de 2019, pero el texto, en realidad, solicita la recuperación de las primas para incentivar la jubilación anticipada voluntaria de todo el personal público vasco y con carácter retroactivo desde 2012.

En este sentido, el Gobierno Vasco advierte de que la recuperación de las primas por jubilación anticipada con efectos retroactivos no es realista porque conllevaría un aumento desorbitado del gasto público que podría llevar a incumplir la “Regla de Gasto”. Además, supondría un impacto económico multimillonario que haría inviables las mejoras laborales comprometidas, ya, por el Gobierno a todo el personal público: la subida salarial del 2.25%, el incremento de las aportaciones a EPSV-Itzarri, el cobro el 100% del salario, desde el primer día, en caso de baja, el aumento del número de semanas, y equiparación a mujeres y hombres, de los permisos de parentalidad, la mejora en la valoración, y por tanto de las retribuciones, de los puestos de trabajo del personal laboral de la Administración General de Euskadi y del personal al servicio de la Administración de justicia, etc.

NEGOCIACIÓN COLECTIVA

Además, el Gobierno Vasco recuerda al PP que la negociación de la edad de jubilación, la posibilidad de hacerlo anticipadamente, las primas para incentivarla o las indemnizaciones a percibir, son parte de la negociación colectiva de las centrales sindicales que representan al conjunto del personal

público. Por ello, el grupo proponente, con su iniciativa, está interfiriendo y condicionando, de una manera grave, el ámbito de la negociación colectiva de la Función Pública.

Además, el Gobierno Vasco cree que la puesta en marcha de esta medida supondría un agravio comparativo porque a raíz de la suspensión de las primas para incentivar la jubilación anticipada por parte del Gobierno español, hay muchas personas que han optado por mantenerse en activo y continuar trabajando para la Administración Pública Vasca.

Desarrollo Económico e Infraestructuras

CERCA DE 134.000 EUROS PARA FINANCIAR BECAS EN ESTUDIOS NÁUTICO-PESQUEROS

- Las ayudas pretenden incentivar la formación relacionada con el sector pesquero entre las personas jóvenes y contribuir así a la renovación generacional y a la modernización del mismo
- El pasado curso un total de 122 personas se beneficiaron de estas ayudas

El Consejo del Gobierno Vasco ha aprobado en su última reunión la Orden de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras por la que se convocan las becas para cursar, durante el año académico 2018-2019, enseñanzas náutico-pesqueras en los Centros de Formación Náutico Pesquero de Pasaia, Bermeo y Ondarroa. La dotación económica destinada a financiar estas ayudas se acerca a los 134.000 euros.

El Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras tiene entre sus objetivos el mantenimiento de una adecuada política de promoción de la capacitación de las personas trabajadoras de los diferentes sectores relacionados con la pesca. Asimismo, considera prioritario facilitar el acceso de los y las al sector y contribuir así a la renovación generacional y la modernización del mismo.

A través de los centros de enseñanzas marítimo-pesqueras de la Comunidad Autónoma del País Vasco y del presente programa de becas se quiere dar respuesta efectiva a las necesidades formativas del sector mediante la organización de cursos “ad hoc” respondiendo a las necesidades puntuales del sector, y continuando con la formación marítimo-pesquera impartida por los citados centros de enseñanza.

Importes y gastos subvencionables

Dotadas con un importe conjunto máximo de 133.815 euros, las becas podrán financiar tanto gastos de residencia fuera del domicilio habitual, como los correspondientes a desplazamiento al centro, manutención, y material para los estudios. Respecto a la cuantía de las becas, ésta será directamente proporcional al número de puntos asignados a cada persona beneficiaria de la beca, de acuerdo con los criterios establecidos en las bases de la Orden. No obstante, se establece una cuantía máxima por persona de 2.404,05 euros.

Todas las becas independientemente del importe que tengan, serán abonadas en un único pago del 100% del importe concedido a la finalización del curso, condicionado siempre al aprovechamiento de éste por parte de las personas beneficiadas, y siempre sujeto a haber superado la totalidad de los módulos o asignaturas matriculadas.

Las becas serán adjudicadas de acuerdo con la puntuación obtenida por las personas candidatas, las cuales deberán estar debidamente matriculadas en el curso 2018-2019 en cualquiera de las escuelas, y será establecida por una Comisión de Valoración nombrada a tal efecto. La asignación de puntos a cada persona se hará de acuerdo con los siguientes criterios:

1. Nivel de los estudios a realizar
2. Distancia entre la localidad de residencia habitual y la localidad en la que está ubicada el centro de estudios
3. Circunstancias personales y familiares del solicitante
4. Ingresos brutos, cualquiera que sea su procedencia, obtenidos durante el año precedente por la persona solicitante o su familia

El plazo de presentación de solicitudes es de un mes contado a partir del día siguiente al de la publicación de la Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Resumen curso 2017-2018

El pasado curso 2017-2018, el importe total para estas becas fue también de 133.815€ y se ejecutaron en su totalidad. Las personas beneficiadas el curso pasado fueron un total de 122:

- Ciclo superior: 64
- Ciclo medio: 36
- Patrón costero polivalente: 22

La cuantía máxima de las becas fue de 2.404,05 euros y la mínima fue de 303,18, todas ellas calculadas conforme a los criterios de asignación de puntos que figura en las bases de la convocatoria.

Empleo y Políticas Sociales

ARTOLAZABAL: “MARZO HA SUPUESTO 1.911 PERSONAS PARADAS MENOS; EL MERCADO LABORAL OFERTA OPORTUNIDADES TAMBIÉN A LOS COLECTIVOS MÁS CRONIFICADOS”

- Lanbide contabiliza 117.952 personas registradas como paradas, 9.212 menos que en marzo de 2018
- El desempleo ha bajado en 500 personas entre mayores de 45 años, y el paro de larga duración se ha reducido en 442 personas
- Un 8,69% de los contratos firmados en el último mes han sido de carácter indefinido
- “El mercado se dirige hacia un modelo productivo y de empresa distinto al tradicional, con nuevos datos, espacios digitales, inteligencia artificial y una mayor robotización para lo que es preciso prepararse”
- “Una mayor formación en el área digital y nuevas tecnologías redundará en nuevas contrataciones y más empleo”

La Consejera de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco, Beatriz Artolazabal, considera que “la evolución del paro registrado en marzo ha sido buena, siendo el **segundo mejor mes de los últimos 15 años** por detrás de marzo de 2005”. En marzo de 2019 el **número de personas desempleadas** registradas en las oficinas de Lanbide **ha disminuido en 1.911 personas**, para situarse en 117.952, siendo el **descenso** en términos relativos **del 1,6%**”.

“Euskadi cuenta ahora con 117.952 personas registradas como desempleadas, un 1,59% menos que en febrero, y con respecto a marzo de 2018 el decremento es de 9.212 personas paradas, de un 7,25%. Todo ello supone que estamos ante el **segundo mejor mes de marzo de los últimos 15 años**, solo por detrás de marzo de 2005” ha explicado la Sailburu Artolazabal.

“Nuestro mercado laboral oferta oportunidades y los datos nos dicen que también los colectivos con más dificultades acceden a esos empleos. Vamos en buena línea, **seguimos creando empleo y nuestro reto está en que éste sea más y mejor**. No olvidamos a las **personas** que aún no han encontrado su oportunidad y por ello insistimos en la **necesidad de formación y actualización para el empleo**”, ha argumentado Beatriz Artolazabal.

En el pasado mes de marzo el desempleo ha bajado en 500 personas entre las **personas mayores de 45 años**, y el paro de **larga duración también ha disminuido en 442 personas** durante el último mes. “Son dos colectivos con especiales dificultades y esta evolución muestra como la recuperación económica también está dando oportunidades a las personas paradas más cronificadas”, según la Consejera Artolazabal.

Juventud

“Uno de nuestros objetivos para esta legislatura era incentivar la contratación para que, al menos, 20.000 jóvenes tuviesen una oportunidad laboral y ya son 16.321 quienes lo han conseguido” ha recordado Artolazabal en referencia al especial **apoyo al empleo juvenil** dentro de los distintos programas que activa el Gobierno Vasco.

“De hecho, en los últimos doce meses el desempleo de larga duración ha experimentado mejor evolución que el desempleo de corta con 7.736 personas desempleadas menos” insiste la Sailburu Artolazabal. Durante marzo ha caído el paro en todos los sectores económicos. Destacan los **descensos del sector industrial y del sector servicios**, del 1,9% en ambos casos con 275 y 1.505 personas desempleadas menos, respectivamente. En términos relativos y en relación a la situación del año pasado destaca el fuerte decremento del paro asociado a **construcción** con un descenso del 17,9%.

“También en todos estos sectores **seguimos promoviendo una mayor formación** en materia digital y de nuevas tecnologías lo que redundará en nuevas contrataciones y más empleo” ha añadido la Sailburu Artolazabal.

Por territorios, durante el tercer mes del año **ha descendido el paro en los tres territorios**: en **Gipuzkoa** un 2,3%, en **Bizkaia** un 1,4%, y en **Araba/Álava** un 1,2%. En el saldo anual el mejor comportamiento corresponde al territorio de Bizkaia con un decremento relativo del 8,3%, seguido por Gipuzkoa con un descenso del 6,3% y de Araba/Álava con una reducción del 4,9%.

En marzo el **paro masculino** se ha reducido un 1,8% mientras el **femenino** un 1,4%. En la comparación anual el paro masculino ha bajado un 8,4% y entre las mujeres lo ha hecho un 6,4%.

Formación

Por **edades**, las personas de más de 25 años han obtenido buenos resultados como así lo detalla Beatriz Artolazabal: “actualmente la mitad de los parados, el 50,9%, supera los 44 años, un 24,7% no llega a los 35 años y el 24,4% restante se sitúa entre los 35 y los 44 años. Además, 72.933 personas paradas, el 61,8% del total, tienen como mucho estudio de enseñanza obligatoria. Durante el último mes, las personas desempleadas con nivel formativo básico han descendido en 846. Durante el último año el decremento del paro entre las personas con nivel formativo básico ha sido del 7,7%”.

En el último mes, el número de contrataciones ha sido de 74.538 de los cuales 6.476, un 8,69%, han sido de carácter **indefinido**. Esto supone que desde el inicio del año se han firmado un total de 20.560 contratos indefinidos en Euskadi, un 2,18% menos que en el primer trimestre de 2018. “Este es un valor importante, porque es una forma de medir la calidad del empleo, aunque no la única y, en este sentido, redoblamos nuestra apuesta por un mejor empleo”, ha indicado la Consejera.

Artolazabal se ha referido al **estudio sobre Juventud y Empleo** de la profesora de la **EHU-UPV Sara de la Rica** “que indicaba, y lo comparto, que hay necesidad por parte de las empresas por generar y retener talento y que la juventud con educación superior alineada con el mercado y con competencias en idiomas, adaptabilidad, creatividad, capacidad de trabajo en equipo- serán muy demandados por buenas empresas y recibirán buenas condiciones laborales. Por ello se han de desarrollar jóvenes bien formados, atrevidos, innovadores, con ganas de aportar y aprender; adquirir nuevas competencias en Autonomía, trabajo en equipo, capacidad de síntesis, disciplina, idiomas, adaptabilidad a otros entornos; y contar con formación dirigida hacia los empleos del futuro y complementaria al avance técnico”.

“También la **Universidad de Deusto** se refiere al emprendimiento y destaca, esta misma semana celebra su 18º Foro de Empleo Juvenil, que las empresas utilizan criterios cada vez más complejos para seleccionar a su personal más allá de un simple *Curriculum Vitae* en papel. Dice el rector **Guibert** que la Universidad tiene claro que se ha de adaptar a los puestos de trabajo, pero estos han de rediseñarse para aprovechar mejor la formación universitaria y mejorar la productividad en el trabajo con nuevos grados y dobles grados, títulos propios, más ofertas de prácticas, más convenios internacionales, idiomas, más formación continua y la formación dual” ha indicado Artolazabal.

“Hemos de tener claro que el mundo se dirige hacia un **modelo productivo y de empresa distinto al tradicional**, con nuevos datos, espacios digitales, inteligencia artificial y una mayor robotización dentro de la 4ª revolución industrial“, ha comentado Artolazabal que se ha referido al rector de **Mondragon Unibertsitatea**, Vicente Atxa, quien señalaba que “se debe dar respuesta a los retos que se plantean en el ámbito de la transformación educativa, fomentando una cultura de la innovación tanto en las organizaciones como en las comunidades educativas y preparar a personas que respondan a los nuevos roles que deberá asumir el profesorado”.

Educación

1,3 MILLONES DE EUROS PARA EL DESARROLLO DE PROYECTOS LINGÜÍSTICOS DE CENTRO

El Consejo de Gobierno, a propuesta de la consejera de Educación, ha aprobado la Orden por la que se convocan subvenciones destinadas a las Federaciones y Asociaciones con relaciones estatutarias o reglamentarias con centros privados concertados que imparten Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria y Bachillerato, que durante el curso 2019-2020 realicen proyectos de innovación para el desarrollo de un Proyecto Lingüístico de Centro. Esta convocatoria cuenta con un importe global de 1.332.000 euros.

Los citados Proyectos Lingüísticos de Centro podrán desarrollarse en alguna de las siguientes modalidades:

- Proyecto Lingüístico de Centro con el Plan Lector como prioridad y desarrollado desde la perspectiva de tratamiento integral e integrado de las lenguas.
- Proyecto lingüístico de centro de carácter plurilingüe con el euskara como eje, centrado en la impartición de áreas o materias curriculares en lenguas extranjeras.

Serán subvencionables mediante esta convocatoria de ayudas aquellas actividades de formación del profesorado vinculadas a proyectos de innovación para el desarrollo del Proyecto Lingüístico:

- Actividades formativas vinculadas al diseño y desarrollo del Plan Lector.
- Actividades formativas relacionadas con metodologías activas e innovadoras para favorecer el desarrollo de la comprensión lectora en el alumnado, especialmente en euskera.
- Actividades formativas dirigidas al profesorado de todas las áreas y materias para mejorar el desarrollo de la competencia comunicativa del alumnado y abordar el tratamiento integrado e integral de lenguas.
- Actividades formativas relacionadas con la enseñanza de lenguas y de materias impartidas en lengua extranjera, para desarrollar metodologías activas e innovadoras que promuevan el tratamiento integrado e integral de lenguas.

Podrán acogerse a estas subvenciones, por un importe global de 1.332.000 euros, las federaciones o asociaciones de centros concertados de enseñanza no universitaria, ya estén constituidas exclusivamente por centros privados de la Comunidad Autónoma del País Vasco, ya sean de ámbito estatal, si bien éstas últimas deberán contar con sede en la Comunidad Autónoma del País Vasco y desarrollar el proyecto lingüístico en centros del País Vasco y, contar, asimismo, con un mínimo de tres centros ubicados en la CAPV y un número total de aulas concertadas igual o superior a 50.

Durante este curso 2018-2019 hay en Euskadi un total de 292 centros educativos, tanto públicos como concertados, que participan en el programa Eleaniztasunerantz y desarrollan su propio Proyecto Lingüístico Plurilingüe.

Educación

169.600 EUROS PARA CURSOS DE FORMACIÓN DEL PROFESORADO DE CENTROS DE FP CONCERTADOS

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, la Orden por la que se convocan subvenciones a centros docentes privados concertados que imparten ciclos formativos de Formación Profesional, para la realización de actividades de formación de su profesorado, durante el curso 2019-2020.

Los centros interesados deberán presentar actividades de formación vinculadas a los ciclos formativos que se imparten en el centro. Cada actividad formativa deberá un mínimo de 10 y un máximo de 35 horas. Podrán participar en esta convocatoria todos aquellos centros privados concertados autorizados oficialmente para impartir ciclos formativos de FP en Euskadi.

La convocatoria de estas ayudas cuenta con un importe económico de 169.600 euros. La cuantía máxima de la subvención será de 32.000 euros por centro por todas las actividades de formación que hayan sido seleccionadas.

Las ayudas concedidas se destinarán a sufragar gastos derivados de la contratación de personas expertas para la formación –ajenas al centro solicitante- o a los gastos derivados de la compra de materiales específicos para las actividades de formación. Las subvenciones concedidas serán incompatibles con las que se pudieran obtener de otras convocatorias que tengan el mismo objeto. El plazo de presentación de solicitudes será de un mes a partir del día siguiente a la publicación de la Orden en el BOPV.

Educación

AUTORIZACIÓN Y SUBVENCIONES PARA LA OFERTA PARCIAL DE CICLOS FORMATIVOS EN CENTROS CONCERTADOS

El Consejo de Gobierno en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, ha aprobado una Orden por la que se convoca a los centros docentes privados concertados de la Comunidad Autónoma del País Vasco que imparten enseñanzas de Formación Profesional, a solicitar autorización y subvención para la impartición de ciclos formativos en la modalidad de oferta parcial para el curso 2019-2020. El importe global de ayudas a conceder con cargo a la presente convocatoria asciende a 838.872 euros.

La Oferta Parcial ofrece al alumnado de FP la posibilidad de matricularse en módulos (o asignaturas) sueltos de forma independiente, a diferencia con la matrícula ordinaria que supone inscribirse en todos los módulos que componen el curso. La asistencia a clase sigue siendo obligatoria en esta modalidad, pero el tiempo que se dedique a ello es menor, lo que permite al alumnado realizar otras actividades mientras cursa los módulos.

Está dirigida a personas mayores de 18 años que deseen mejorar su nivel de cualificación y que cumplan con los requisitos de acceso a los ciclos formativos. La superación del módulo o módulos profesionales llevará a obtener una certificación académica y una acreditación parcial acumulable de las competencias adquiridas. La matrícula se realiza coincidiendo con el inicio del curso académico.

Durante este curso 2018-2019, 13 centros concertados de Formación Profesional de Euskadi ofrecen, en la modalidad de Oferta Parcial, 71 módulos pertenecientes a 18 ciclos formativos, tanto de grado medio como de grado superior.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO DESTINARÁ 54.000 EUROS A PREMIAR LAS TRES MODALIDADES DE LOS GALARDONES GURE ARTEA

- **Estos premios tienen como objetivo facilitar la difusión del arte contemporáneo vasco, poniendo el foco en las artes plásticas y visuales**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy la orden que regula y convoca los premios Gure Artea. En total, se destinarán 54.000 euros a premiar las modalidades que cada año reconoce esta iniciativa, y cada premiado se llevará 18.000 euros. Las tres modalidades de estos premios, organizados por el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco, son las siguientes: reconocimiento a la trayectoria artística, premio a la labor creativa y reconocimiento al fomento de las artes plásticas y visuales por parte de agentes del ámbito cultural.

La finalidad de los premios Gure Artea es promover el desarrollo creativo, incentivando la creación artística, así como el reconocimiento de este trabajo. Además, se pretende facilitar la difusión del arte contemporáneo vasco, favoreciendo el reconocimiento social en el ámbito de las artes plásticas y visuales.

La primera modalidad toma en consideración toda una labor y trayectoria artística, y premia la labor de artistas que destacan "por su labor creativa y su contribución a la cultura y arte contemporáneos". La segunda modalidad tiene en cuenta los últimos años y premia a "artistas o colectivos artísticos destacados por su actividad artística o por su contribución a la creación contemporánea". Por último, la tercera modalidad premia la labor promotora de agentes culturales en el ámbito de las artes plásticas y visuales.

Los ganadores de los premios Gure Artea se darán a conocer a lo largo de esta primavera, mientras que la gala de entrega de los premios tendrá lugar en otoño. Gema Intxausti, Erlea Maneros y Bulegoa z/g fueron las premiadas del pasado año.